


MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Xabier
Amuriza
Zarraonaindia**



36

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA

Xabier
Amuriza
Zarraonaindia



2019



EUSKO
IKASKUNTZA

Egilea: Xabier Amuriza Zarraonaindia



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

Azaleko argazkia: Julen Uribe Leanizbarrutia

AMURIZA ZARRAONAINDIA, Xabier

Xabier Amuriza Zarraonaindia / Xabier Amuriza Zarraonaindia. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2020. – 88 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona ; 36). – Testua elebiduna euskaraz eta gaztelaniaz. – Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2019.

ISBN: 978-84-8419-294-7

1. Xabier Amuriza Zarraonaindia – biografia 2. Bibliografia – Xabier Amuriza Zarraonaindia
I. Eusko Ikaskuntza II. Saila III. Izenb.

Hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzeta eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministeritza.

EUSKO IKASKUNTZA

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48 – 20007 Donostia

<http://www.eusko-ikaskuntza.eus> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ISBN: 978-84-8419-294-7

L.G.: D 00166-2020

Fotokoponsaketa, inprimaketa eta enkoadernaketa: Antza S.A.L., Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Bizitza bat oroimenean	5
Una vida en la memoria	33
Une gogoangarriak Momentos memorables	65
Bibliografia	79



Bizitza bat oroimenean

HAURTXOA SOINU BARRUAN

1941eko maiatzak 3. Gurutze Santuaren eguna. Guretzat, “Santikurtz” eta “santikurtzak”. Bizkargi mendiaren tontorrean, Santikurtzen baseleiza bat, Etxanoko partean, muga eginez Larrabetzu, Morga eta Gorozikarekin, orduan udalerrria berau ere, Etxano bezala. Bizkargi mendia, gerratean, fronte estrategiko garrantzitsua izana baitzen, inguru lubakiz eta bonba-zuloz beterik dago. Lubakietan ijitoen karroak finkatuak dira bezperatik, erromeria ospetsu eta jendetsuan euren salerosiak egiteko. Soinujole gazte bat erromeria jotzen ari da zelaian, eta bere laguntzaile bat han dabil, dantzan ari diren gizonezkoei paparean trapuzko gurutzetxo bana josten, erreal bana kobratuz. Emakumeak libre dira ordaintzetik.

Hartan, soinujoleak, lubaki batean, ijito-karro baten azpian, haurtxo bati erreparatzen dio negarrez, baldetxo batean, bere mantarretan bildua. Ijito-karroaren inguruan inor ez da ageri. Pieza amaitu eta, txiza egiteko plantan, badoa lubakira, karro inguruan inor ez dabilela ikusi eta, aitaren batean, haurtxoa soinu an sartzan du. Oholtzara itzuli, beste pieza bat abiatu, eta erromeria aurrera. Haurtxoak negar dagi, baina soinuaren hotsak ez du uzten kanpotik ezer entzuten. Ño! Hori dok amorrua! –hots egiten dio noizean batek zelaitik. Haurtxoa, astiro-astiro, isilduz doa, nekaturik edo zorabiatuak. Edo, beharbada, atseginez, amaren sabela baino abaro hobera itzuli delakoan.

Ijitoen artean mugimendu larria abiatu da, haurtxoaren faltaz ohartu direnean. Halako iskanbila zabaltzen da, non erromeria desegiten baita. Soinujoleari ondo etorri zaio hori, hanka-jokoari emateko, *hemen leku txarrean gagozak!* esanez. Haurtxoa negarrez hasi da berriz, baina inguruan dabilen burrundarekin, soinujoleak berak ere apenas nabari duen ezer, ostikada txiki batzuez beste. Noizbait, bakar-zidor bat harturik, soinujoleak biribilketa gozo bat abiatzen du, urratsak erritmora edo erritmoa urratsetara egokituz, eta haurtxoak konforme dirudi. Halaxe iristen da, bizkor baina gozoki, ahate bat urgaina oinkatuz bezala, Torreburubarri izeneko baserriaren parera, Etxanon, Autzaganatik Oizerako muino-lerroan, Gorozikarekin mugan. Soinujoleak

Torreburuzarrera joan behar du, baina beldur da amak, hain zorrotz eta elizkoiak, nolako erreakzioa izan dezakeen. Zerbait egin behar eta (haurtxoa negar-garrasika orain) erabaki du – *honek horixe gura jok*– Torreburubarrin gelditzea, bere arreba ezkonduaren etxean. Sukaldeko mahai gainean akordeoia ireki eta haurtxoa garraisika eta ostikoka agertu denean, arrebak erasotzen dio:

- Baina zer dakark hemen? Zer egin dok?
- Hau ezin jeutsanat amari eroan.
- Non ostu dok? Zoratu egin al haz?

Soinujoleak historia kontatu dio, eta arrebak, aurretik bi ume-
ren amak, darantzu:

- Itxi berton! Haurtxo hau orain entregetan itzultzen bahaz, akabauko habe. Geuk be behar genduan beste bat –haurtxoa besoetan harturik–, eta begira zelako irribarretxoak urten deutsan.

TORREBURUBARRI

Haurtxoa Torreburubarrin geratu zen, eta biharamun goizean bertan bataiatu –gauzak azkar egin behar ziren–, *Javier Cruz* izenez, orduan ez baitzegoen *Xabier* eta *Kurutze* eta horrelako ausarkerietan saiatzerik. Haurra ondo hazi zen –burua gehiegitxo, aukeran–, oinez ere ondo, txakurkumea harrapatu guran eta abar, baina hizketan atzerapen bat zekarren. Atzerapena edo, beharbada, alferkeria bat, hitz egiteko ez baitzuen ahorik irekitzen. Dena *hm, hm, hm*, aho itxian. *Esan aitari bazkaltzera etortzeko!* –amak, eta umeak, joan eta pinu-ipurdi baten gainean oilarturik, dei egiten zuen: *Hm-hm! Hm-hm-hm hm-hm-hm hm!* Eta aitak berdin erantzun, aho itxian. Ama sutan jartzen zen aitarekin. *Umeak zelan ikasiko dau, ba, berbetan, zeuk be holan egiten badeutsazu?* Aitak pentsatzen zuen: *Jateko zabaltzen jok eta ez dok galduko.* Denbora aurrera, bi urteak ere atzean utziak, eta ama larritzen hasia zen, eta ama eroaten medikuarengana, Zornotzan (baserrira ez zen etortzen, ehizan edo ez bazen), Urkiolara, Deustuko San Felizisimora, Errigoitira... Zekizkien mirari-leku guztietara.

Artean, osaba soinujolea Torreburubarrira etorri zen garizuman, soinua ezkutuan jotzera, amamak ez baitzuen jasaten garai sakratu horretan soinurik, ez inolako fribolitaterik. Berak ere ez zuen panderorik jotzen, panderojolea izanik. Baina soinujoleak ezin zuen berrogei egunean soinuari heldu gabe egon, eta denbora antzu hura errepertorioa errepasatzeko eta handitzeko erabiltzen zuen. Arrebaren etxean egiten zituen entseguak, amamaren ezkutuan, leihoak Torreburuzarretik ahalik kontraren ematen zuen Torreburubarriko logela batean. Soinujoleak ohea hartzen zuen eserleku, eta ume aho-itxia aurrean belauniko jarzen zitzaion, adi-adi eta noizean hatz bat sartuz soinuaren toles, zirritu edo botoi miragarri haietako batean. Osabak, batzuetan, uzten zion, eta umeak *hm-hm-hm!*, *hm-hm-hm!*, *hm-hm-hm!* egiten zuen, exaltaturik, emozioaren lurrunik begiak tratatzen zizkiola. Soinua isildu zen, umeak atera begiratu zuen, eta aita agertu zen, berak ere soinua entzun nahi zuela eta. Osaba soinujoleak beste pieza bat jo zuen, eta aitak esan zuen:

- Horrexen barruan etorri hintzan hi!
- Hm? –umeak–. Hm-hm? (Nondik?).
- Bizkargitik –aitak.
- Hm-hm-hm? (egia da hori?) –umeak osaba soinujoleari.
- Egia dok, bai –baiezatu zuen osabak.

Eta historia guztia entzun zuen umeak. Beste haur guztiak Paristik etortzen zirela, zikoina batek ekarriak, bidean erortzen zirenak salbu. Nolabait leundu behar ziren orduan gertatzen ziren haur-galtze ugariak, iragartzen baitzuten: *Laster ahizatxo bat edo nebatxo barri bat izango don*. Baina gero igual ez zen iristen. *Zikoinari bidean jausi jakok*. Torreburubarriko mutikoa Bizkargitik etorri zen, soinu baten barruan. Berbarik egiten ez bazuen ere, mutikoak ondo ulertzen zuen historia hura guztia, eta harrotzekoa zen berea hain etorrera berezia izatea, beste Parisko bidaiari haien guztien aldean. Garizuma amaitu zen, osaba hasi zen berriz ere erromerietan jotzen, eta aitak, umeari berbetan irakatsi beharrean, kantak, koplak eta bertsoak irakasten zizkion. Umeak, bere hizkuntzan, denak ju-jutzen zituen. Hiru urte gainean, eta ama gero eta larriago, santu berrien bila. Harik eta behin, etxe alboan, umea bere kontura kantuan nabaritu zuen arte. Jarri zen adi-adi, eta umeak ondo ulertzeko moduan

kantatzen zuen: *Ezkondu eta ezkongai, guztiak ondo bizi nahi, dirua dagonian jai*. Eta abar. Amari orduantxe zabaldu zitzaion zerua, hots egiten zuela: *Kantatzeko zabaltzen badau, berba egiteko be zabalduko jon*.

BIZKARGI

Horrelaxe jaso eta bizi izan nuen nik mundu honetara etortzearen abentura. Aitaren fantasia bat izan zen, etxeko eta inguru hurbileko guztiak jarraitu zutena, amamak barne, liluraturik ikusten baininduten. Lilura hura asko handitzen zuen Bizkargiko tontorra gure etxetik bista-bistan egoteak. Hasi nintzen hizketa-rako ere ahoa irekitzen eta aitari galdetzen nion:

- Noz joango gara Bizkargira?
- Santikurtz egunean –erantzun berak. Iritsi zen Santikurtz eguna, eta berak: –Ondino txikia haz. Datorren urtean.

Bost urterekin ere “txikia” nintzen oraindik.

- Hurrengo urtean.
- Beti esaten deustazu horixe! –nik.
- Bai, bai! Hurrengoan, seguru!

Sei urte egitera nindoan bezpera gaua ez zen laburra izan. Lorik apenas egin nuen biharamunaren pozean. Eguna argitu zuen, eta hura ezustekoa! Inguruak zuri-zuri. Maiatzaren hiruan, egundoko elurtea. 1947an. *Holan ezin haut Bizkargira eroan* –aitak. Hura desesperazioa, beste urtebetean itxaron beharra. Haserrea ere bai, ni baietz eta baietz ari bainintzen. Bidezkoa zenez, ezetza izan zen. Azkenean, hurrengo urtean, zazpi urte egiten nituen egunean, iritsi nintzen noizbait Bizkargira, aitaren eskutik, beste herritar eta albo-herritar ugarien artean. Bidea erromerian eginik, azken berrehun metroak errezuan eta kantuan egin behar ziren. *Letainiak*. Santikurtz baselizara iristean, lehen lana, meza santua. Aitari praketatik tiratzen nion, esanez:

- Noz ikusi behar dodaz lubakiak?
- Itxaron apur batean. Meza amaitutakoan.

Nik tira berriz ere praketatik, baina isilik biok, jendarte estu-estuan. Meza amaitu baino lehentxoago, aita ere gogaitu zen, antza, eta disimulu guztian, kanpora. Baselizaren albo batean, mendebalderantz, ijitoen karro batek okupatzen zuen lubaki bat. Haurrak, txakurrak eta bizidun ugari bertan, karropean eta karro inguruan. Aitak, goitik haraxerantz seinalatuz, diost:

- Hortixik!
- Hortik zelan? –nik–. Dana jentea eta mogimentua dago-ta!
- Osaba soinu-joleak karropean heu bakarrik hengoan unetxo bat baliatu joan, eta di-da!, soinu barrura.
- Baina nik negar egingo neban!
- Baita arrantza be, baina soinua bizi-bizi jo eta kanporantz ez zoan ezer entzuten.

Eta halaxe galderak, bata bestearen atzean. Egun guztia eman nuen joan-etorrian, neure sorreraren irudi bitxiak eta bizkorrak barneratu guran. Eguna amaitu ez balitz, oraindik hantxe nengokeen, misterio argituaren inguruan.

LEHEN SAIOA

Bueltan, Autzaganan, erromeriak jarraitzen zuen. Orain erai-tsita dagoen taberna-denda zaharrea, Joseparenean, gure aitak, egun guztian zehar bezala, kantuan jarraitu zuen. Tarteka, bertsotan ere bai, bat-batean. Berak esan eta berak barre, entzuleak algaraka jartzen zituen. Ni aitaren kontran, bere prakei helduta, ezer ikusten ez nuela, taberna bete-betea.

Bat-batean, esku-pare fatal batek gerritik heldu eta barra gainera altxatu ninduen, zutik utziz bertan. Han aurkitu zen nire burua Joseparen lukainka, bakailao lehor eta gainerako den-da-jakien ilaran, non kokatu edo jakietatik nola apartatu ez zekie-la. Aitak bertso bat kantatu zuen, bat-batekoa. Sasi-bertso bat, beti bezala, baina arrakastatsua, *ni bezelako bertsolaririk ez da munduan aurkitzen* eta halakoak. Eta entzuten ditut deiadarrak: *Aupa, Jabi! Hi aita baino gehiago haz eta! Aitak beste bat kantatu zuen, denak isildu ziren, eta hutsunean ezabatuko ez banintzen, salto egin behar nuen. Hasi nintzen eta, tiraka-tiraka, amaitu egin nuen. Hura txalo zarta! Zer esan joat nik? Hi gehiago haz!*

Aitak beste bat kantatu zuen –hari berdin zion txarra nahiz txaragoa izan, kantari ona baitzen–, eta nik jarraitu. Eta hala, saioa aurrera, sonoroa gainera, biok *tzen* eta *tzen* eta *tzen* errimatuz.


Hartan, *Kartzelas* ezizeneko gizon bat –bera ere sasi-ber-tsolaria– txapela pasatzen hasten da, elizan bandeja bezala. *Bota bildur barik! Bota!* Nik txanponak –txakur handiak, txakur txikiak, errealak...–txapelera jausten ikusten nituen, txintxinka, Kartzelasek txapela astintzen baitzuen, *bota, bota!* aginduz. *Diru horreek zetako ete dozak?* –harritzen nintzen, baina pentsatze-ko ahalmen gabe, nahiko estura bainuen kantuan jarraitzen. Taberna bete-beterik, atearen alde bietan guardia zibil bana, trikornioak buruan eta armen kulatak bota gainean, kanoiei makilak bailiran helduta. Nik guardia zibilei beldur handia nien. Emango ote zuten ezer? Eta hara non ikusten ditudan pezeta gorri bana botatzen, Kartzelasek txapelera. Pezeta gorria diru handia zen orduan. Amaitu zen diru-batzea, eta ezusterik handiena falta zen. Kartzelas badator barrara eta agintzen dit: *Atera musuzapia!* Ai, ama! Ba ote daukat? Baneukan, bai, gure ama arduratzen baitzen umeak ondo horniturik bidaltzen jaietara. *Zabaldu zapia!* –agintzen dit Kartzelasek. Zabaltzen dut esku biekin eta aitaren laguntzaz, eta ipuinetako mirarietan bezala, diru guztiak neure zapira. Kartzelasek berak korapilatu zuen zapia, diruak barruan zituela, eta eskura emanez, diost: *Hau heuk bakarrik gastetako, e! Hi aita baino gehiago haz eta!*

Autzaganatik etxerakoa, gau beranduan, estarta eta baso-bi-deetan zehar egin nuen, aitaren bizkarrean hankalepo, neure diru-poltsatxoari ondo helduta, pinu adarren batek eraman ez zezan. Etxera iritsitakoan, horma kontrara jasotzekoa zen sukaldeko mahaia jaitsi zuen aitak eta agindu zidan: *Zabaldu zapia mahai gainean.* Amaren haserre-marmarra entzuten zen goian, ziola: *Baina zertan egon leiteke gizona ezkaratzean, umeagaz goizaldean etxeratuta?* Liluraturik eta irrikaz nengoen diruak kontatzeko. Aita neu baino umeago zegoen, eta azkenean, bere laguntzaz, kontaduriak hauxe eman zuen: hamalau pezeta, zazpi txakur handi eta zortzi txakur txiki. Dirutza izugarria niretzat. Etxeko ohape guztiak beharko ziren, txanpon haiek guztiak ondo gordetzeko.

Halaxe bihurtu zen, bat-batean, bertsolari «Torreburuko muti-koa», bere munduratzearen egia berretsi zuen egun berean. Unea, barra gaineko saioa, lehen susto monumentalaz harago, laino batean joan zen, zer gertatzen ari zen ohartzeko ere alterazio handiegian. Oro har, zoramen bat, dirutza hura guztia neuretzat zela ikusi nuenean. Judasen diru-poltsa halako poza ematekoa bazen, kasi-kasik justifikatua zen egin zuena. Egunak aurrera joan ahala, ordea, titulu berri hura –“bertsolaria”– nire haurtzaroaren arantza gertatu zen, noiznahi eta nonahi hasi baitziren eskatzen: *Bota bertso bat!* Eta mutiko hura, benetan ere, ez zen bertsolaria. Gusturen eta gehien gozatzen egoten nintzen lekuetan –jaiak, txerri-afariak, gonbidatu-bazkariak, janari gozoak egoten ziren tertulia guztiak–, une bat iristen zen, non *bota bertso bat!* eskatuko baitzuten. Une hori, gehienez, niretzat ez zen iristen, aurretik, inor ohartzeko, ezabatua bainintzen mahaitik eta ingurutik. Baina beti ez nuen ondo kalkulatu unea, jateko gozoak ere hantxe utzi behar baitziren, edo unea bera aurrertzen baitzen. Kontua da bizitzako egunik politen haiek ihesean igaro nituela. Eta, jakina, gaizki kalkulatu nuenean, edo ezustean harrapatzen nindutenean, estura itzelak pasatzen nituen, harik eta, hamaika urterekin, Zornotzako karmeldarren kolegioan internatu nintzen arte. Barruratze triste hartan banuen kontsolapen bat: *Hemen, behintzat, inork ez jeustak bertsorik eskatuko.*

BASOETAN KANTARI

Bertso kontua salbu, haurtzaroa nire oroimenaren itzul-min bezala geratu zen betiko. Bizimodu urria eta bakartia izan nuen. Gure etxea inguruko etxe ia bakarra zen. Berrehun bat metro-ra zegoen amamaren etxeaz beste, hurrengo baserriak urrunegi zeuden ume batentzat. Etxea gain batean egonik, bai Etxano eta Zornotzako auzoak, bai Gorozika, Ibarri eta haragokoak, paraje handiak ikusten nituen, denak urrun eta behean. Inbidia handia ematen zidan pentsatzeak auzo haietan nire antzeko umeak jolasean eta lagunartean ibiliko zirela. Hala ere, nire haurtzaroa, dena jota, zoragarria izan zen. Inguru eta bakardade guztia neukan neuretzat, nahi nituen esperimendu eta asmazio guztiak egiteko. Lanak ere egin behar izaten ziren etxean, behi-zaintza batez ere, baina aurkitzen nituen tarteak, luzeenak ere laburregiak, neure esperimentuak egiteko, dena baitzegoen han:



txoriak, animaliak, iturriak, errekek han beherago, zuhaitz mota guztiak, harriak, erremintak, txakurra beti ondoan... Eta inguruan ezer grinagarriarik aurkitzen ez banuen, beti zegoen kantua, erri-tualki errepikatzen nuena.

Behiak zaintzen basorik baso nenbilenean –ia egunero–, lehenengo dibertsioa izaten zen zuhaitz punta batera igo eta, txoriekin batera, nekizkien kanta guztiak abestea: koplak, bertsoak, latinezkoak, erdarazkoak... Aitarengandik ikasitako guztiak. Eta geroago, berriz ere gauza bera, beste dibertsio konbintzenterik aurkitzen ez banuen. Hori guztia entretenigarri gisan egiten nuen, baina baita exhibizio moduan ere, bai bainekien, han-hemen, batek baino gehiagok entzun zezakeela, orduan jende asko ibiltzen baitzen baso-lanetan. Inoiz, beste auzo batzuetara ere hurbiltzen nintzen neure behiekin. Gero norbaitek aitari edo amari esango zion: *Hazelako kantaria daukazuen mutikoa!* Eta gero gure aitak mundu guztian zabaltzen zuen berria. Ni jabetzen nintzen horretaz, eta jendaurre hurbilari ihes egiten banion ere, zuhaitz puntatik beti publiko handi bati bezala kantatzen nuen. Bitartean, behiek ere baliatzen zuten aukera noranahi alde egiteko, eta orduan iristen ziren larritasunak, inoiz gautu artekoak, azkenean etxera joan behar izateko, negarrez. *Behiak galdu dira!* Eta bildurrez amarengandik entzuteko: *Behiak galdu dira ala zeu galdu zara?*

Haurtzaroa nire oroimenaren abaroa dela esan dut, eta laburbilduz eta ondorio handi bat atera behar banu, esango nuke bakardadea erreminta oso efektiboa dela haur batentzat. Gauza jakina da haurrak, oso introbertitua ez bada, eta aukeran uzten bazaio, lagunartea hautatuko duela beti. Baina oso ona da bakardadea hutsera beharturik aurkitzea ere, orduan hutsunea –haurrak ezin du denbora hutsik jasan– adimenez eta irudimenez bete behar baitu, horrek zentzu guztietako garapenera daramala, bera ohartu gabe.


NIRE LEHEN EZKONTZA

Eskolaz ez daukat, bere hartan, hain oroitzapen txarrik. Maistra on-on bat genuen, onegia beharbada, edo argi esanda, inpotenteegia, basatalde hura guztia menperatzeko. Bost urtetik

hamabostera, 50 laguneko fauna misto hezigaitza, batez ere, mutilen aldetik. Egunaren hasierako *Cara al sol* hura oso atseginenez gogoratzen dut. Zer zen ez nekien garbi, baina gauza bitxiak entzuten ziren: *Cara al sol con la camisa ro-ota, y el culo al aire por detrás... y traerán vendidas cinco to-ortas...* (prendidas cinco rosas). *Por Dios, por la pata del buey* (por Dios, por la patria y el rey) *lucharon nuestros padres...* Eta halakoak. Maleziara iritsita zeuden mutilek edozer kantatzen zuten. Neskak askoz otzango eta bigunagoak ziren. Nire eskolako beldur nagusia mutilak ziren. Borrokak, besteen zigorrak bete beharrak, lapurreta behartuak: hainbeste sagar, madari, barraskilo batu behar (ostu behar), eta bestela, zenbat falta, hainbeste belarrondoko, eta halakoak. Hargatik ni, ahal zen guztian, neska nagusien inguruan ibiltzen saiatzen nintzen, haiek ez baininduten jotzen, eta bai, ordea, mutilen erasoetatik babesten.

Eskola-aro primitibo hartatik oroitzapen atsegingarri bakar bat gorde behar banu, hauxe litzateke, seguruenik: nire lehen ezkontza. Bi mutiko neskato banarekin “zertu” ginen, eta eurek ere bazirudien “zerari zertzen” ziotela. Neskek bazuten eskola inguruko lorategian partzelatxo bana (hiru-lau metro karratu), eta ni atzea galdu beharrik ibiltzen nintzen neure laguntxoaren esanak egiten: loreentzat ura ekarri, harri-koskorak batu, bareak apartatu (noizean bat jan ere bai) eta halakoak. Laurok baztertxo batean biltzen saiatzen ginen disimuluan, eta esplizituki deklaratu gabe bazen ere, bagenekien “elkarrekin” genbiltzala. Elkarrekin eta bakoitza berearekin. Hartan, pentsatzen hasi ginen: *Zergatik ez gara ezkontzen?* Bi mutikoak monagilloak baidin, berehala antolatuta genuen plana.

Orduan elizak zabalik egoten ziren. Herriko apaiza falta izango zela bagenekien arratsalde batean, beste eskola-lagunak elizaldetik aldendu zirenean, gu disimuluan, soraio plantan gelditurik, elkartu ginen eta sartu ginen elizan, lurpeko piztiak bezain bizkor. Bi monagillook atera genuen sakristiatik ezkon-beloa, belaunikatu ginen laurok ilaran, belaunaulkian, bi neskak erdian eta beloa lauron bizkarrak estalduz, eta hazi ginen ezkontzako zeremonialeko otoitzak eta formulak jaulkitzen. Gauzak ondo egin behar baitziren, testigu bat ere, mutil on-on bat, eramana genuen egintza balidatzeko. Aldarearen aldamen batean eseri



zen guri begira, epistola-tokian. Egitekoak berehala egin behar ziren, norbaitek elizan atzeman ez gintzan. Elkarri baietza emanik, zeremonia amaitutzat eman eta beste hirurak azkar irten zirenean, ondo gogoan dut, “komaidios berton hiltzeko!”, aita-gure bat errezatzen geratu nintzela, neu bakarrik, “geuziek ondo urten daijen”. (Gauza ondo atera dadin). Beharreko “eztei-bidaia” ere egin genuen, harrobi zahar batera. Testigua tontortxo batean eseri zen eta hark ere zerbaitetan partea nahiko zuen, esaten baitzigun: *E-e-e-eixue, ba!* Oso totela zen gaixoa. Ez zuen ikusi, bi mutiko sagar batzuk ostu eta neskei ematen besterik. Hartatik aurrera, lagunak baino zerbait gehiago ginen, eta ahalak egiten genituen elkar babesten, fauna hartan ez baitzen falta zertatik babestu. Historia luzatu zen pixka bat, baina erabat moztu zen, fraile joan nintzenean.

Geroztik ia urtebetera, udako oporretan itzuli nintzenean, banekien segregazioa totala izango zela. Ez neukan nire laguntxoarekin traturik izaterik, ezta hitzik egiterik ere. Baina ikusiko nuen, eta hori bazen aski ilusio. Lehen igandeko meza nagusian, eliza bete-beterik, ikus-min handia zegoen nolako frailetxo agertuko zen Torreburuko mutikoa. Nire ikus-mina beste bat zen. Orduan mezak latinez eta erretaulara begira izaten ziren. Monagillook ere halaxe, belauniko, atzean, ez tul eta otoi tz, herri osoaren presentzia nabaritzuz. Pentsatzen nuen: *Hortxe egongo dok! Gogoratzen ete dok bera be?* Baziren une batzuk, eliztarren-ganantz buelta ematekoak. Abadearen sermoia zen bat, non monagillook eskuineko banku batean esertzen ginen, alboz, baina jendea ikusteko moduan. Jaunartzea ere bazen, non “gure neskak” ere etor zitezkeen nire patena gainean okotza jartzera. Eta batez ere, bazen diru-batzea. Hemen ilara guztiak banan-banan pasatu behar ziren, eta ziur hur-hurretik ikusiko nituela Mirentxu (nirea) eta Karmentxu (nire lagunarena). Baina ez zeuden han. Nire ikus-mina kezka-min bihurtu zen. Igande hartan beste norabait joanak izango ziren.

Astlehenean, frailegaiak mezatara joan behar zuen. Egunero, zortzietan. Meza amaitzen zenerako, bederatzietan eskolara sartu beharreko neskato-mutiko guztiak han ibiliko ziren, elizpean edo plazan. Eskolara atesare beretik pasatu beharko zuten denek. Baina Mirentxu eta Karmentxu ez zeuden

han! Ez asteartean, ez hurrengoan, ez hurrengoan. *Zer gertau dok hemen?* Ez nintzen ausartzen galdetzen, nire interesaren arrazoiak igarriko ziren beldurrez. Denbora batera jakin nuen zergatia, era oso zeharrean. Bi neskatok ez ziren Etxanokoak, aiti-ta-amamen etxera etorriak baizik, zirenak ziren arrazoiengatik. Ni komentuan nintzela, euren jaiotetxeetara itzuli ziren, urrun, betiko. Lasaitu nintzen alde batera, pentsatuz: *Jangoikoak merezidu jok horrenbeste.*

Hurrengo kurtsoan seminariora aldatu ninduten, urteak joan ziren, eta hamasei urte nituela, udako oporretan, herriko abadeak herriko beste apaizgai bat eta biok egunpasan eroan gintuen. Bueltan, Zornotzako El Cojo jatetxean, abadeak askaltzera gonbidatu. Nire poza eta “mundua” zapaldu nahia handia zen halakoetan, Torreburuko mendialdetik apenas jaisten bainintzen. Zerbitzen ari zen neska gazteak eta abadeak konfiantza eta txera handiz hitz egiten zioten elkarri. Abadeak izena ere esan zuen behin –Karmentu–, eta barruak zauzk egin zidan. Dena zetorren bat. Neska zerbitzari hura nire lagun monagilloaren behinolako “emazte” Karmentu zen. Bigarren zauzkada berehalakoa izan zen: *Eta nirea? Mirentxu nun eta jabik?* Ez nintzen ausartu ezer arakatzen. *Jangoikoak merezidu jok horrenbeste.*

Berriz ere urteak joan ziren, eta Derioko seminarioan, hogeita hiru urte nituela, sotana betirako hartu beharra zekarkeen ordenazio baten atarian geunden. Subdiakonotza. Ordena horrek, sotanaz gainera, botoak zin egitea zekarren, tartean kastitatearena. Lau kurtso-lagunek azken “eskapada” zibila edo “prakaduna” egitea erabaki genuen. Ezkongaien despedida bat bezala, baina alderantziz. Eskapada, jakina, era guztiz arauz kontrakoan izan zen, eta nire aldetik, behintzat, aldarte guztiz melankolikoan. Sotana betirako! Larunbata izanik, arratsaldean ordu batzuk libre genituen, eta Deriotik, Zamudio, Lezama eta Larrabatzun zehar, Erletxeetaraino iritsi ginen, Berrio jatetxera, hango etxeoandrea ezaguna bainuen. *Zelan hemendik?* eta abar, diru askorik ez geneukan, baina askari gozoa ari zen mahaira etortzen. Eta neska zerbitzaria, ni baino urte bat edo bi gazteago zirudiena, oso atsegina eta txeratsua zen. Egia esan, guretzat orduan hitz egiten zigun edozein neska zen atsegina. Halako etorrera batean, diost:

- Zu Torreburukoa zara, ezta? –Baietz nik, taupadak ezin gordez–. Ba, gu eskolara batera ibili ginen.
- Nun? –galdetu nuen zentzugabeki, eskola bat baino gehiagotara ibilia izan banintz bezala.
- Etxanon.

la barrua zartatu zitzaidan, pentsatuz: *Hauxe dok nire andra-txoa!* Eta ausartu nintzen galdetzen:

- Mirentxu zara zu?

Baietz. Ez nintzen ausartu galdetzen ea bera gogoratzen zen... Buff! Ezin nuen sentitu, aurrekoetan bezala, Jainkoak horrenbeste merezi zuela, eta esan nion neure kautan, Karmentxu hizketan ari zitzaidala: *Ene Jangoiko! Zelan pasaurazten nok ataka honetatik?* Beste hiru lagunei historia kontatu nien, eta esan zidaten, beldurturik:

- Ezin haz abade egin! Ezkonduta egotea inpedimentu totala dok.

Apaiztu nintzen, ba! Eta mende erdi baten ondoren, duela ez urte asko, Mirentxu –orain Miren– berriz ikustea egokitu zitzaidan, familian zeramaten jantzi-denda elegante batean. Adinaren talaia baretik ausartu nintzen galdetzen ea gogoratzen zen eskolako erromantzeaz, eta baietz erantzun zuen, irribarrez. Ez nuen solasa aurrerago eraman, senarra, metro batzuk haragotik, adi baitzegoen, seguruenik lehen aldiz entzuten zuen berri hartarra. On da gauza on batzuk amaitu gabe gelditzea, beti on jarrai dezaten.


KOMENTUA

Eskolara itzulita, ikasten ez nintzen txarra, formalegia bainintzen, beldurragatik. Maistrak kutuntzat nindukan, eta hortik etorri zen nire haurtzaroaren inflexioa. Fraile karmeldarrak (eta beste batzuk) pasatu ohi ziren eskolatik, “bokazio bila”, eta maistrak beti gomendatzen ninduen. Aita Luzio karmeldarrak, arrosarioak eginez, aliketa fin-finak eta distiratsuak ateratzen zituen, zilarrezkoak irudi. Halako erreminta liluragarririk gure

etxean ez zegoen, eta nire begiak finko zeuden eurretan, kometuan dena halakoxea izango zelakoan. Maistraren gomendioa batetik, alikateen lilura bestetik, azkenean baietz esan nuen. Eta baietzaren ondorioak zoragarriak izan ziren. Etxekoek, amamak, osaba-izebek, auzoek, denek aparteko txeraz hartzen ninduten eta gailetak eta gordean zeuden gauzarik gozoenak ateratzen zizkidaten, esanez: *Hau gure frailetxo!* Neurekiko pentsatzen nuen: *Fraile hoala esatea lako mahukarik ez jagok hemen!* Harik eta, egun batez, nire amabitxi, izeko Madalen artzaina, Mañaritik Torreburraino etorri zen arte, opari bat bizkarrean zekarrela: zaku bete artile. Komentura eraman beharreko koltxoia egiteko. Zakukada hura ezkaratzean ireki zutenean, eta artilea zela ikusi nuenean, pentsatu nuen, leize zorian: *Ai, ama! Orain joan beharra jagok! Ezin joat ezetzik esan.*

Baietza hain aurrera eta hain dohatsu joana izanik, ez nuen aurkitu ezetz esateko aitzakiarik, hain gutxi, kemenik. Zornotzako karmeldarren internatura. Urrunago izan balitz, beharbada lehenago desatxikiko nintzatekeen etxe-minaz, baina hain hurbil, hain bertan nekusen neure paisaia –eskerrak etxea bera San Joan mendixkak estaltzen zuen–, ezen ezin bainuen gainditu egunero negar egin beharra. Hori bai. Bizitzako gauarik zoragarriena ere negar haiexek ekarri zuten. Ia urtebeteren ondoren, oporretan etxera joateko egunaren bezperan, ezin nuen inondik ere lorik hartu, ehundik gora mutikoren lotegi bakarrean. Ohe ilara luzeak armairu txiki banarekin. Ezin lorik hartu, baina ezin pozezko mugimendurik ere egin, hainbeste lagunez inguratuturik. Pentsatzen nuen: *Honeek danok benetan lo ete jagozak, bihar etxera joatekoak izanda?* Jaiki nintzen komunera, eta atea ondo giltzaturik, hantxe egiten nituen jauziak eta ihutiak, pozaren pozari nondibait askatzen utzi beharta. Komunean luzaroegei egoitea susmagarri izan baitzitekeen, itzultzen nintzen ohera, baina aldi batera, berriz komunera, eta berriz jauziak eta zilipurdiak. Halaxe eguna argitu arte, Zornotzako elizako kanprietatik, denbora nagia azkartzeko alferrik aginduz. Ez zen gau laburra izan izan, baina bai zorion luzea!

Amaigabeki kontatzen jarrai nezakeen urtebeteko sentimenduetatik harago, edo sentimenduen haustespen txit labur bat



bezala, maila intelektualeko zenbait pasarte aipatu nahi nituzke, karmeldarretan izan nuen esperientzia hartatik.

- 1) Gehienbat beldurragatik bazen ere, oso zintzoa eta isila nintzen. Isiltasuna, berez ere, egunik gehieneko –eta zer esanik ez, gaueko– obligazio zorrotz bat zen. Hori ez zitzaidan hainbeste kostatzen, isiltasuna niretzat defentsa handia baitzen. Zintzoa ere banintzen, ordea, eta ikasketetan ondo nenbilen. Horregatik, oso estimaturik nengoen direktorearen eta beste zaintzaile eta irakasleen aldetik. Direktorea, Aita Fidel, bera zen ikasleen kontrola hurbilen zeramana. “Gure direktorea”. Kolegioko zuzendaria edo errektorea esan genezakeena “aita priorea” zen. Aita Julio.

Ikasketetan bazen sailkapen-sistema etengabe bat, egunerokoa. Alegia, asignaturetan –latina, matematika eta abar–, ordena irabazle (edo galtzaile) baten arabera ezertzen ginen aulkietan. Klaseetan, lanen kalifikazioak eta galderak izaten ziren. Kalifikazio onenduna lehen pupitrean jartzen zen. Baina gero, klasean zehar, galderak ere izaten ziren. Norbaitek galderaren erantzunik ez bazekien, sailkapeneko hurrengoak erantzun behar zuen, eta hala korritzen zuen galderak, erantzun zuzena iritsi arte. Orduan zuzen erantzun zuena huts egileen aurrera pasatzen zen sailkapenean eta, ondorioz, aurreko pupitrera aldatzen, huts egileek pupitre bat atzera eginez.

Sistema horrekin, posizioak etengabe aldatuz joaten ziren, baina beti osatzen zen multzo bat, gehienez aurrean kokatzen zena, eta beste multzo bat, “atzeratuen multzoa”, ia beti atzetik aurreratu ezinik gelditzen zena. Bazen erdiko multzo inkonkretu bat ere, beti gune grisean mugitzen zena. Eta, jakina, azken ere egon behar zuen norbaitek. Ni, gehienez, lehenen egon ohi nintzen. Batzuetan, bigarrenera, hirugarrenera erortzen nintzen, baina berehala berreskuratzen nuen burua. Dinamika horrek lehen postua galtzeko ez ezik, noizbait azkeneraino erortzeko beldur handia eragiten zidan batetik, eta bestetik eta batez ere, beti azken multzoan zebiltzanek –batez ere, azkenek– pena eta erruki izugarria ematen zidaten. Sistemaren gakoak

kritikoki arrazonatzeko gaitasunik ez banuen ere, sentitzen nuen lotsari eta apalmen handiegia zela, halako ikasle oraindik umeentzat. Urtearen azkenean, batean izan ezik (matematikan uste dut, 9,5), beste guztietan 10 eman zidaten. Eta portaera, estudio eta horrelakoetan, zer esanik ere ez. Hala, “hamar hamarrek mutikoa” izatera pasatu nintzen. “El chico de los diez dieces”. Laster esango dudan moduan, titulu hori bigarren urtean, seminarioan, erabat suntsituko zen.

- 2) Erruki-beldur haien zerrendan, niretzat ikuskizunik inpakanteena ohean txiza egiten zuten mutikoena izan zen. Ez txizagatik beragatik bakarrik, nahiz eta hori ere berria izan niretzat, baizik gero koltxoiak lehertzeko eragatik. Lotegiko leiho handiek jolas-patioa ematen zuten batzuek, eta beste batzuek albora, herri aldera. Ohean txiza egin zutenek, meza ostean, gosari aurretik, ohea egiteko ordu laurden hartan, koltxoiak leihotik kanpora eseki behar zituzten. Ezkutuan edo disimuluan pasatzen saiatzen zirenei, direktoreak berak edo zaintzaile batek esekitzen zizkien. Eta koltxoiak han gelditzen ziren zintzilik, zenbat bustiak ziren, hainbeste denboran. Jolasorduetan, patioan eta frontoian genbiltzanean, koltxoi haiek denen bistan zeuden. Gatzetik libre zeudenak burla ere egiten zuten, ez beharbada, koltxoi-jabea bera zuzenean, baina bai euren artean hoska: *Begira, begira! Koltxoi hori ustelduta jagok!* Pentsa horrelakoak entzuten zituen jabeak zer sentituko zuen. Koltxoi batzuen kasua nabarmena bezain tristea zen, izan ere, ia egun guztian zintzilik, pizar edo pilotatxo ustelduak patioa erortzen zirela. Bakan batzuk halaxe egunero. Beste batzuk maiztasun ezberdinez. Ehun lagunetik gorako komunitatea batean, “txizagileak” (“los meones”) izango ziren dozena batetik gora. Neure koltxoi hala iruditzeak hezurretarainoko ikara sartzen zidan. Huraxe zen niretzat, orduan, munduan pentsa zitekeen umiliaziorik handiena. Koltxoi haien jabeek ematen zidaten pena ere burmuineraino sartu zitzaidan, pentsatzen nuela: *Mutiko horreek zelan jarraitzen jabeak bizirik?*

- 3) Beste kontu larri samar bat jatorduetako legea zen. Ekartzen zuten jana amaitu arte, ez zegoen mahaitik altxatzerik. Bazkarian, adibidez, ondoren ordu erdi edo hiru ordu laurdeneko jolasordua zen. Ba, plateran zirenak zirelako arrazioak jartzen zizkizutela (printzipioa, bigarrena eta postrea), fraile zaintzaileak hantxe edukiko zintuen zure platerak garbi ikusi arte, beste guztiak jada patioan zebiltzanean. Nik, normalean, ez nuen arazo handirik izaten dena jateko, kostata bazen ere, baina bazen plater bat, bakailao-saltsa moduko bat, usainik ere jasan ezin nuena. Begiak itxi eta lortzen nuen jatea. Baina bat eta bi eta hiru baino gehiago beti gelditzen ziren han (beti berdintsuak), jolasordua amaitu eta oraindik platerekoa amaitzeko zekatenak. Gero klasea edo estudioa baitzatorren, horrexek mozten zuen sufrikarioa. “Sufrikarioa” diot, horixe pentsatzen bainuen. Izu-dardara ematen zidan neure burua mutiko errukarri haien larruan iruditzeak.
- 4) Hizkuntzara etorririk, dena erdaraz egin beharrak ez ninduen hainbeste kezkatzen, bai baineekin halaxe zela edo behar zuela. Ez askorik, baina jolasorduetan-eta, euskaraz ere egiten nuen batzuekin. Baziren, ordea, giputzak eta nafarrak ere, eta hantxe hartu nuen euskararekiko lehen dezepziorik handiena eta, beharbada, iraunkorrena, ikusi nuenean hain euskara ezberdinak zeudela. Nire burutik ez zen inoiz pasatu euskara leku guztietan berdina ez zenik. Ohituta negoen, etxeko senideen artean, diferentzia batzuk nabaritzen, esaterako, arratiarren, mañariarren, gernikarren, maumarren eta abarren artean, baina funtsean, bitxitasun batzuek harago, euskara berdintzat neukan dena, ulertzeko batere trabarik gabea. Eta hara, karmeldarren kolegioan, ulertzen ez nituen euskarak aurkitu nituela. Hori ez zitzaidan sekula burutik pasatu, eta ikaragarrizko dezepzioa hartu nuen. Hainbat handiagoo, ikusten bainuen denok erdara berdina egiten genuela, eta misio urrunetatik zetozen fraileek ere erdara berdina egiten zutela, azentua eta beste ñabardura batzuk salbu. Dezepzio hark eraman ninduen, beldurragatik batez ere, giputzekin eta nafarrekin euskaraz egitea ahalik gehien saihestera. Dezepzio hark, nolabait, oraindik hortxe darrai indarrean niregan,

hizkuntzarekiko gogoeta guztiak egin eta gero ere. Edo, agian, horrexegatik.

- 5) Azkenik, esan behar dut, oro har, fraile karmeldarren tratuaren oroitzapen txarrak ez daukadala. Fraile “herritarrak” ziren. Euskaraz egiteagatik ez gintuzten jazartzen. Astean bi edo hiru klase ere baziren euskaraz. Internatuek hala-koxe arautegi zorrotzak zeuzkaten, eta batzuetan, hezibide edo inertzia krudel samarrak ere bai, baina fraileek eurek ez gintuzten gogor tratatzen. Baten bat jenio txarrekoa bazegoen ere (herrena bera!), normalean, tratu karinosoa ematen ziguten. Nik falta nuena etxea zen. Beste pentsamendurik ez zebilen nire buruan. Baina hori ez zen fraileen errua. Geroztik urteetara, komentuko sufrikario haien berri zerbait kontatzen hasi nintzen batez, bera ere tartean zen amak galdetu zidan: *Ez hintzan heure gogoz ibili ala?* Berehala ohartu nintzen hizkera minduan egin zuela galdera, eta umore puntura aldatu nuen gaia. Gure amaren aurrean ezin zen halako nahigaberik kontatu, bereganako akusaziotzat hartzen baitzuen errelatoa, bere umearentzat irtenbide handi bat izan zela sinetsita bizi izan ondoren. Eta egia zen. Haurrek internatuetan pasatzen zituzten on-txar guztietatik harago, ni, zorioneko alikate, artile eta abar bide zirela, karmeldarren internatura sartu ez banintz (edo eramana izan ez banintz), ez nintzatekeen iritsiko izan naizena izatera. Zerbait gehiago eta hobea izango nintzela, beharbada? Ez dago jakiterik, baina orduko zirkunstantzia sozialak nolakoak ziren ikusita, probabilitateak guztiz besterakoak ziren. Azken batez, fraile karmeldarren tratua zakarretik baino gehiago oroitzen dut onberatik. Baliteke nire pertzepzioa ez izatea lar objektiboa, nahiko “kutuna” izan bainintzen eurentzat.

SEMINARIOA

Bigarren urtean, herriko abadearen diligentzia baten ondorioz, Derioko seminarioa aldatu ninduten. Geroago jakin nuen fraileek oso haserre eta sumindurik erreakzionatu zutela erabaki haren aurka. Nik orduan ez nuen ezer jakin, ez ezer egin, agindutako tokira joan besterik. 1953a, Derioko seminarioa

estreinatu zen urtea, hain zuzen. Derio etxetik urrunago zegoen, baina etxe-mina ez zen gutxitu, areagotu baizik, hango biziera eta tratua fraileena baino askoz lehorragoa eta masifikatuagoa baitzen. Komunitatea askoz handiagoa zen, eta euskararen bazterketa (jazarpena ere bai), esplizitua. Euskarazko kanta bakarra kantatzen zen urte guztian, eta bera kurtsoaren azken eguneko azken mezako azken errituala zen: *Agur, Jesusen Ama*. Kanta hori abestu eta berehala, maletak bizkarrera jaurti eta trenera. Etxera! Geroztik, kanta hori entzuten edo kantatzen dudan bakoitzean, azken-egun haien poz pilatu guztia berritzen zait, barruan euforiaren olatu bat lehertu balitzait bezala. Bitarteko egunetara itzulita, Derioko seminarioan, kontrako politizazioa bortitzagoa zen fraileetan baino, moralitatea zorrotzagoa, eta oro har, itomen sakonagoa. “Hamar hamarreko mutikoa” han joan zen zulora. Ez zuloaren barreneraino, defendatzen bainintzen nola edo hala, baina gregario arrunt bat bezala. Fraileetako distirak ezabatu ziren.


Seminarioan bazen beste kontu bat, nire bizitzako larriunerik handienak ekarri zituen. Karmeldarretako estantzia urtean 700 pezeta zen. Ia-ia edozein familiak ordaintzeko modukoa. Seminariokoa, ordea, “pentsioa” esaten zitzaiona, urtean 4.000 pezeta zen, hiru hiruhilekotan. Gure etxean ezin zen kopuru hori ordaindu, baina aldakuntzaren eragile izan zen Etxanoko parrokoak amari agindu zion aurkituko zutela beka bat, eta ez zela izango arazorik. Gurasoak konformatu ziren, eta ni, bigarren urtean, Derioko seminariora. Arratsaldean iritsi, lotegi korritu handi batean ilaran lo egin, eta biharamun goizean lehen susto mortala abisua, eman zutenean: *Bajar todos con sotana y beca, para ir luego en comunidad a la parroquia de Derio*. Gomorra bezain gogor geratu nintzen. *Ai, ama! Nik ez jaukaat bekarik! Etxera balduko naiabek*. Irtsi ginen Derioko parrokiara, eta ni pentsatzen: *Elizara sarreran eskatu jeustek*. Ba, ez. *Mezatan eskatuko jeustek, ebanjelioaren ondoren edo*. Ba, ez. *Eleizatik urtekeran eskatuko jeustek*. Ba, ezta. *Bueltan, seminarioan izango dok*. Ba, ezta! Egun guztia igaro nuen halaxe, *oraintxe harra-pauko naiabek!* pentsatuz. Eguna amaitu zen, eta inork ez zidan ezer eskatu. *Zer demonino jabik hemen?* Biharamunean ezer ez, hurrengoan ere ez, eta ez hurrengoan, ez hurrengoan. *Nora etorri nok ni?* Handik egun batzuetara, lagun bat entzuten dut

beste bati esaten: *¡Oye! Que te has dejado la beca en la ventana.* Barruak jauzi egin zidan txitxarro biziak poltsan bezala. *Beka?* Begiratu nuen eta neuk soinean neraman prenda baten izena zen “beka”. Sotanaren gaineratik, paparrean angelua eginez, sorbaldetatik atzerantz esekitzen zen banda gorri bat. Buffff! Berba txatxu bategatik nolako larrialdiak astebetean!

Beste beka, diruzkoa, laugarren ikasturtean iritsi zen, bi urte larri eta apalgarri jasan ondoren “dirugabeen pikotan”, herriko abadeak bertan behera utzia baitzuen kontua. Zorionez, Bilboko familia batek –Ramon Barreiro eta Maria Luisa Asumendi– nire karreraren ardua ekonomikoa euren gain hartu zuten. Eurai eskerrak apaiz egin ahal izan nintzen. Eta nola ez, euren «etxe-ko», betiko.

Beharbada, motibo horrexegatik, bosgarren urtetik aurrerantz (hamasei bat urterekin), hasi nintzen berriz ere burua jasotzen eta zenbait gaitan nabarmentzen (latina, grekoa, musika eta abar), eta gero, filosofian eta teologian, neure kontzientziaren jabe eginik, errebeldia morala eta intelektuala ere urrun eraman nuen. “Genuen”, hobeto esanda, 1960 inguruan, hamarkada esplosibo bat abiatu baitzen, seminarioak, komentuak eta herri-maila guztiak astindu zituena. Pentsa nire errebeldia intelektuala, edo zehatzago esanda, nire nortasun intelektuala noraino joan zen, lan bat egin bainuen –tesina bat–, non frogatzen saiatu bainintzen apokalipsian eta beste liburuetan iragarritako antikris-toaren ezaugarri guztiak Eliza ofizialean betetzen zirela. Lan hura lagun hauta batzuei bakarrik erakutsi nien, zeintzuek, eskuak buruan, aholkatu baitzidaten: *Hau ez inori erakutsi gero!* Goikoiei ez, behintzat, bidaltze fulminantea izango baitzen.

Errebeldia haren barruan sartzan zen moralismoaren eta Elizaren itxikeriaren aurkako enfrontamendua, eta politika kontestatarioraren onarpena, Euskal Herriaren eta herri guztien eskubide politiko, sozial eta kultural guztiak barne hartzen zituena. Horren barruan, euskara lantzea eta liburu politikoak eskuratzea (Jose Antonio Agirre eta abar, gehi kaleko propaganda ilegalak), lehenetasun bat bihurtu ziren, seminarioko sektore ez hain handi, baina bai ondo antolatuta baten inguruan, dena klandestinoki burutu beharra baitzegoen. Halako liburu politiko



bat harrapatzea etxera bidalia izateko arrazoi automatikoa zen. Bertsolaritza lantzen ere hantxe hasi nintzen, isilpeko bertso-eskola moduko bat sortuz. Teologian (jada hogei urtetik gora), zirritu ugari aurkitzen genuen, seminarioko araudia nonahitik bur-latzeko. Batez ere, Abel Muniategi lagun nuela, gauak ere egiten genituen kanpoan, barrura sartzeko moduak ondo kalkulatu. Arriskuan beti ere, baina zorteari laguntzen irakatsi genion.

Norbere kautan lantzea, berriz, ezin zen inondik ere kontrolatu. Seminarioko elizkizun ugarietan eta komunitateak isilik egin beharreko atzera-aurrera ugarietan, sobera denbora ateratzen genuen –baita gozatu ere!–, nahi adina bertso buruz ikasteko eta errepasatzeko, arrosarioa errezatzen ari ginen plantan. Hori baitzen eredugarria. Ehun lagunetik gorako komunitate batek, jolasetik elizara, elizatik jantokira, jantokitik klaseetara, klaseetatik estudiora, denbora luzea behar zuen desplazamendu ordenatu bat egiteko, korridoreetan zehar. Bitarte isil horiek arrosarioa errezatzen egitea zen, esan bezala, eredugarria. Ale bakoitzean agurmaria bat, guztira, berrogeita hamar ale, arrosario bakoitzean. Nik horixe egiten nuen, baina agurmarien ordeztan, bertso bat kantatzen nuen mentalki. Arrosario batean 50 bertso. Horrela, eta gero neure kautan, neure gelan (filosofian eta teologian gela indibidualak genituen), ehundaka bertso ikasi nituen buruz, gero eguneko mugimendu eta otordu isiletan eta eleizkizunetan buruz errepasatzen nituenak. Behin, kontua ere atera nuen zenbat bertso nekizkien buruz, eta orain ez daukat gogoan zehazki, baina baziren milatik gora.


Euskaltzaindiak (Alfonso Irigoienek) *Euskal Kantak* izeneko liburuxka bat argitaratu zuen 1960an (nik hemeretzi urte), non denak bertsoak baitziren. Laurehun bat, guztira. Ba, nik haiek denak buruz ikasi nituen. Gehi gero Xenpelarren, Kepa Enbeitaren, Txirritaren, Otañoren, Elizanbururen, Bilintxen eta beste hainbesterenak. Norbaiti exagerazioa irudiko zaio, baina buru-lan hori guztia ez nuen egiten memoria exhibitzeagatik edo irrika konpultsibo bategatik, pragmatismo ximple bategatik baizik. Norbere gelatik kanpora, ezin ginen ibili bertso-liburu bat (edo beste edozein liburu) eskuetan genuela, eta eguneko ordurik gehienak gelatik kanpora ziren: elizkizun, klase, jatordu, jolasordu eta komunitatearen desplazamenduak. Horietatik

gehien-gehienak, jolasorduak izan ezik, isiltasunean. Guztira, dozenaren bat ordu. Ordu horietan, kanpo-itxura arauzko bat mantenduz gero, burua zertan zebilen inork ez zekien. Eta ez pentsa nire buruan bertsoa bakarrik zebilenik. Egunean ordubete nahikoa zen, aurretik gelako bakardadean ikasitako edo erdi-ikasitako 40-50 bertso mentalki errepasatzeko eta zalantzak finkatzeko. Egunero egin ezta ere, urteak egun asko zeuzkan, eta urteak ere banituen aurrean batzuk. Sei urte, hain zuzen, horretan hasi nintzenetik apaiztu arte. Ez da, beraz, lehen kolpean eman dezakeen besteko balentria. Adin horietan, gustuko arloetan, internatu baten presioan, eta sistema itoazle bati ihesbide bat aurkitzen ari zarelako kontzientzian, buruak bide luzeak egiten ditu.

Euskara kontuan, esperientzia bat izan nuen, zer pentsatu handia eman zidana. Beste zenbait idazlan eta idazleren artean, Jorge Manriqueren *Coplas por la muerte de su padre* izeneko erdal poema ospetsua itzultzen hasi nintzen (“recuerde el alma dormida, avive el seso y despierte, contemplando...”), metrika eta errima-joko berdinean. Saiatu nintzen gogoz, baina ezin nuen emaitza onik lortu. *Zer arraio gertetan dok hemen?* Eta ezinean amore eman nuen, neure ezgaitasunari esleituz errua, nahiz eta ez kezka handi bat gabe. Gero, handik urteetara atzeman nituen ezintasun haren gakoak, *Hitzaren kirol nazionala* eta *Euskara batuaren bigarren jaiotza* izeneko saiakeretan azalduko zirenak. Laburki esanik, euskaraz (besteak beste), postposiziozko deklinabideak asko zailtzen du errima, eta aditzaren luzerak, neurria. Zorionezko aditz perifrastikoa edo aditz trinkoen urritasuna. Horrexegatik zen hain zaila –ezinezkoa esango nuke orain– Manriqueren koplak bere moldean euskaratzea, aldaketa edo omisio nabariegia egin gabe.

ABADETZA

